



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Borja Niso pianista Bilbora iritsiko da eta Arriaga Antzokian eskainiko du bere ikuskizunik anbiziotsuena

- Martxoaren 5ean, ostegunean, 19:30ean, publikoak *Borja Niso Dream Experience* kontzertuaz gozatuko du: antzerki eta musika elementuak uztartzen dituen proiektu bat da, Nisoren beraren berrasmaketa pertsonalaren ohiz kanpoko istorioa kontatzen duena.

Bilbo, 2026ko otsailaren 27a.- Datorren astean (martxoaren 5ean, ostegunean, 19:30ean) Arriaga Antzokira bokazio berantiarreko pianista bat iritsiko da, urtetxo batzuk zituela bere benetako pasioa elikatzen hasi zen artista bat. **Borja Nisoren** istorioa eraldaketa harrigarri baten kontakizuna da, posible zen horren mugei desafio egin eta gizakiaren emozio sakonenekin konektatzen duen eraldaketa batena. Ogibidez ingeniaria zen Borja, errutina korporatiboan murgilduta bizi izan zen, harik eta, introspektzio sakoneko une batean, bere bihotza entzutea erabaki zuen arte. 36 urterekin, musikan inolako esperientzia gabe eta pianoa jotzen jakin gabe, bere ibilbide profesionala atzean uztera eramango zuen bide bat aurkitu zuen, eta ordura arte ezagutzen ez zuen pasio bati ekin zion: musikari.

Gaur egun, Borja Nisok 45 urte ditu, 400 kontzertu baino gehiago eman ditu eta 90.000 ikusle baino gehiago liluratu ditu. Baina bere eragina musikatik harago doa: ametsak, ezinezkoak diruditen arren, pasioz, ahaleginaz eta ausardiaz lor daitezkeela erakusten duen adibide bat da. Erakutsi du geure burua edozein adinetan berrasma dezakegula eta benetako arrakasta bihotzaren deiarri jarraitzera ausartzen garenean aurkitzen dela.

Borja Nisoren ikuskizunek musika, emozioa eta narratiba uztartzen dituzte eta adin guztietarako egokiak dira, baita familia eta haurrentzat ere. Bere musika eszenatoki handietan entzun da eta, orain, Arriaga Antzokiaren txanda da. Bertan, publikoak bere proposamen berrienarekin gozatu ahal izango du: *Borja Niso Dream Experience*. Proiektu horrek antzerki eta musika elementuak konbinatzen ditu bere berrasmaketa pertsonalaren ohiz kanpoko istorioa kontatzeko. Borja, musikaria ez ezik, pianoa konektatzeko eta hunkitzeko bitarteko gisa erabiltzen duen narratzaile bat ere bada.

Hamarkada frenetiko bat

Borja Niso ez da geldirik egon artearen aurrean esnatu zenetik. Eszenatokietan egin zuen debuta Ludovico Einaudi konpositore ezagunari egindako omenaldi batekin hasi zuen, hura baitzen bere inspirazio iturri nagusia. Hasierako omenaldi horren harira, *Ludovico Musical Experience* eta *Inspired by Ludovico Einaudi* ikuskizunak sortu ziren besteak beste, eta ibilbide artistiko paregabe bati hasiera eman zioten. Partiturarik gabe, Borja ikaskuntza autodidaktan murgildu zen eta berehala bihurtu zen pianoaren birtuoso. Urte gutxiren buruan, zalantzas betetako ameslari izatetik konpositore, pianista eta murgiltze esperientzia musikalen sortzaile sendo bat izatera igaro zen.

Urteen poderioz, Borjak bere musika-hizkuntza propioa ere arakatu du eta konpositore gisa izan duen bilakaera islatzen duten lau disko sortu ditu: *Orígenes* (2019), *Horizontes* (2021), *Rhapsode* (2023) eta *Evolution* (2024). *Rhapsoden*, orkestra sinfonikorako konposatutako bere lehen lanean, Borjak bere proposamen sortzailea zabaldu zuen, eta musika klasikoaren handitasuna eta bere dinamismo emozional propio bereizgarria fusionatu zituen, baita etengabe eraldatzen ari den artista moldakor gisa sendotu ere. Obra horiek azpimarragarriak dira beren soinu ingurutzailagatik eta harridura sortzeko duten gaitasunagatik; askotariko publikoekin sakonki konektatzen dute, publikoa soinu unibertso bakan batera eramanda. Eta horixe bera da datorren ostegunean Bilborako duen helburua.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 19 eta 36 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus